

BEGIRA

Ez zara ohartzen, baina begira-begira naukazu. Lo goxoak hartua zauzka. Bare duzu gogoa, bare gorputza. Arnas pausatuak kulunka eragiten dio zure bularraldeari. Kulunka leuna.

Besapeetara arte estaltzen zaituen maindire zuri eta aratzak samur biltzen zaitu, samur eusten dio zure loari, atsedenari.

Zimurrek hartua dizute azala, bizi izandako hainbat, hainbeste bizipenen ezkutaleku izan litezkeen horiek. "Urteak, urteak ez dira alferrik pasatzen".

Ohartzen naiz. Gero eta bereago zaitu heriotzak, eta gero eta urrutiago zaude gugandik, bizitzatik.

Eskua hartu dizut, goxo. Laztuak dituzu eskuak, bizitzak gogortuak. Matte-matte egin dizut, inoiz zuk niri bezala. Leun, samur.

Irribarre egin ote didazun iruditu zait.